

emeri la zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA ESCUELA DE INGENIERÍA DE BILBAO

INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOKO ATALA

SECCIÓN INGENIERÍA TÉCNICA INDUSTRIAL

--

Sinadura DATA	Sinadura DATA
------------------	------------------

3. KALKULUEN ERANSKINA

3.1. SARRERA	6
3.2. EGITURAREN KALKULUAK	6
3.2.1. HASIERAKO DATUAK	6
3.2.2. AKZIOAK	7
3.2.2.1. Akzio iraunkorrak.....	8
3.2.2.1.1. Berezko pisua.....	8
3.2.2.2. Akzio aldakorrak.....	8
3.2.2.2.1. Erabilerako gainkarga.....	8
3.2.2.2.2. Eragin termikoa.....	9
3.2.2.2.3. Elurra.....	9
3.2.2.2.4. Haizea.....	9
3.2.2.3. Ustekabezko akzioak.....	9
3.2.2.3.1. Lurrikara.....	9
3.2.2.3.2. Sutea.....	10
3.2.3. ESTALKIA	11
3.2.3.1. Estalkiaren itxitura.....	11
3.2.3.2. Estalkiaren kalkuluak.....	11
3.2.3.2.1. Akzioak.....	12
3.2.3.2.1. Akzioen laburpena.....	24
3.2.3.2.3. Kargen konbinaketak eta itxituraren baieztapena.....	24
3.2.4. FATXADA	27
3.2.4.1. Fatxadaren itxitura.....	27
3.2.4.2. Fatxadaren kalkuluak.....	28
3.2.4.2.1. Akzioak.....	29
3.2.4.2.2. Akzioen laburpena.....	34
3.2.4.2.3. Kargen konbinaketak eta itxituraren baieztapena.....	34
3.2.5. PETRALAK	35
3.2.5.1. Goiko petralak.....	37
3.2.5.2. Alboko petralak.....	40
3.2.5.3. Amaierako emaitza.....	43
3.2.6. ZUBI GARABIA	44

3.2.6.1. Ezaugarriak eta datu teknikoak.....	44
3.2.6.2. Zubi garabiko akzioak.....	46
3.2.6.3. Zubi garabiaren ondorioko egoera posibleak.....	53
3.2.7. HABE GIDARIA.....	55
3.2.7.1. Hasierako datuak.....	55
3.2.7.2. CRANEWAY software bidezko kalkulua.....	57
3.2.8. SOLAIRUARTEKOA.....	66
3.2.8.1. Solairua.....	66
3.2.8.1.1. Azken muga egoeraren baieztapena (ELU).....	69
3.2.8.1.2. Zerbitzu muga egoeraren baieztapena (ELS).....	72
3.2.8.2. Solairuartekoaren egitura.....	73
3.2.9. CYPE 3D azterlana.....	111
3.2.9.1. Gilbordura.....	112
3.2.10.1.1. Gilbordura koefizientea.....	113
3.2.9.2. Albo gilbordura.....	117
3.2.9.3. Gezi limitea.....	118
3.2.9.4. Kargak.....	118
3.2.9.5. Emaizak.....	123
3.2.9.5.1. Barren azken muga egoera.....	123
3.2.10. LOTURAK.....	167
3.2.10.1. Zutabe portiko mota – mentsula	167
3.2.10.2. Zutabe hastiala – habe hastialak.....	170
3.2.10.3. Portiko hastialeko gailurreko lotura.....	174
3.2.10.4. Solairu arteko lotura habea – zutabe hastiala.....	179
3.2.10.5. Solairuarteko arteko lotura habea – zutabetxo hastiala.....	183
3.2.10.6. Zutabe portiko mota – solairuarteko karga habea – solairuarteko lotura habea.....	192
3.2.11.7. Solairuarteko zutabea – solairuarteko lotura habeak.....	196
3.2.10.8. Solairuarteko zutabea – solairuarteko lotura habeak – solairuarteko karga habea.....	200
3.2.10.9. Zutabe hastiala - mentsula	203
3.2.10.10. Zutabe portiko mota – solairuarteko karga habea	207
3.2.10.11. San Andres geziko habea – portiko hastialeko zutabea	210

3.2.10.12. San Andres geziko habea – portiko motako zutabea	213
3.2.10.13. San Andres geziko alboetako perfil angeluarra I	214
3.2.10.14. San Andres geziko alboetako perfil angeluarra II	215
3.2.10.15. San Andres geziko alboetako perfil angeluarra III	216
3.2.10.16. San Andres geziko alboetako perfil angeluarra VI	217
3.2.10.17. Solairuarteko zutabea – solairuarteko karga habea	222
3.2.10.18. San Andres geziko estalkiko perfil angeluarra I	223
3.2.10.19. San Andres geziko estalkiko perfil angeluarra II	224
3.2.10.20. Saretaren beheko kordoia arriostartzeko habea – zutabetxoa ...	225
3.2.10.21. Sareta.....	226
3.2.11. AINGURAKETA PLAKAK.....	272
3.2.11.1. Taldeak.....	272
3.2.11.2. Konprobakeak.....	273
3.2.12. ZIMENTAZIOA.....	282
3.2.12.1. Taldeak.....	283
3.2.12.2. Konprobaketak.....	284
3.2.13. LOTURA HABEAK.....	292
3.2.13.1. Taldeak.....	293
3.3. ZOLARRIA.....	293
3.4. ESKAILERAK.....	294
3.5. IGELTSEROTZA.....	320
3.5.1. ZOLADURA.....	320
3.5.1.1. Zoru teknikoa.....	320
3.5.1.2. Gres baldosak.....	321
3.5.2. TRENKADA MULTZOA.....	321
3.5.2.1. Barneko trenkadak.....	321
3.5.2.2. Ezaugarri termikoko trenkada.....	322
3.5.2.3. Egitura metalikoa.....	323
3.5.3. SABAI AIZUNA.....	324
3.5.3.1. Egitura.....	325
3.5.4. ISOLAMENDU TERMIKOA.....	329
3.6. INSTALAZIOAK.....	331
3.6.1. IGOGAILUA.....	331

3.6.2. UREN EBAKUAZIOA	335
3.6.2.1. Euri uren ebakuaziorako sarea.....	336
3.6.2.1.1. Kanalak.....	337
3.6.2.1.2. Hustu bidea.....	337
3.6.2.1.3. Zorrotenak.....	338
3.6.2.1.4. Euri uren hodi biltzailea.....	338
3.6.2.1.5. Euri urak biltzeko arketa.....	339
3.6.2.2. Ur hondakinen ebakuaziorako sarea.....	339
3.6.2.2.1. Biltegitratze adarrak.....	341
3.6.2.2.2. Ur hondakinen zorrotenak.....	341
3.6.2.2.3. Biltzaile horizontalak.....	342
3.6.2.2.4. Ur hondakinak biltzeko arketa.....	342
3.6.3. UR HORNIKUNTZA	343
3.6.3.1. Ur hotzeko instalazioa.....	343
3.6.3.2. Ur beroko instalazioa.....	345
3.6.4. ARGIZTAPENA	348
3.6.4.1. Etengabe lanerako erabiliko ez diren lokalen argiztapena.....	350
3.6.4.2. Eskakizun bisual mugatuak suposatzen dituzten lokalak.....	359
3.6.4.3. Eskakizun bisual arruntak suposatzen dituzten lokalak.....	366
3.6.4.4. Laburpena.....	367

3. KALKULUEN ERANSKINA

3.1. SARRERA

Eranskin honek, proiektu hau osatzen duten eraikinaren elementuen baita saneamendu zein iturgintza instalazioen diseinuak justifikatzeko hartu diren erabakiak azaltzen ditu. Horretaz aparte, eraikin elementu mota ezberdinen materialen aukeraketa zehazten da, hala nola, zutabeak, itxiturak, sabai azunak... etab. baita eraikineko igogailua eutsiko duen egitura metalikoa ere.

Horrekin batera, merkatuak eskaintzen dituen aukera ezberdinen abantailak eta desabantailak azaltzen dira, baita kalkulutan erabilitako prozedurak ere. Amaierako emaitzak azaltzen dira, dagozkien egiaztapenekin batera.

Kalkulu estrukturalak gauzatzeko, lehendabizi hasierako datuak azaltzen dira baita estrukturaren gain eragingo duten akzioak ere. Ondoren, estrukturako elementu bakoitzaren ikerketa egiten da, beraren gain eragin dezaketen kargen konbinazioak aztertuta. Ahala, elementua era egokian dimentsionatu egiten da eta elementu bakoitzaren arteko loturak definitzen dira.

Kalkuluak “**CYPE Ingenieros**” programarekin egiten dira: “**Generador de Pórticos**” eta “**CYPE 3D**” moduluekin. Eraikinaren elementu zehatz batzuentzako bestalde, “**CESPLA**” softwarea erabili da.

Egingo diren kalkuluak eraikinarenak, zimentazioarenak, saneamendu sarearenak eta iturgintza sarearenak dira, eta “**Código Técnico de la Edificación**” (CTE)-ren oinarritzko dokumentuetan (“**Documento Básico (DB)**”) oinarrituta egon beharko dira.


3.2. EGITURAREN KALKULUAK

3.2.1. HASIERAKO DATUAK


Eraikinaren dimentsionaketa egiteko kontuan hartzen diren oinarritzko datuak hurrengoak dira:

- ❖ Egitura metalikoa duen nabe industrialia da.
- ❖ Estalkia bi isurkietara.

- ❖ Luzera: 70 m
- ❖ Zabalera: 30 m
- ❖ Portikoen arteko distantzia: 7 m
- ❖ Estalkiaren inklinazioa: 10°
- ❖ Dilatazio junta: nabearen portiko zentrolean: 6. portikoan
- ❖ Altuera librea: 15 m
- ❖ Gailurreko altuera: 17.645m
- ❖ Itxiturak: Sandwich motatako panela
- ❖ Kokalekua: Mungiako Belako Industrialdea
- ❖ Kokaleku topografikoa: Normala
- ❖ Eremu klimatikoa: 1
- ❖ Eremu eolikoa: C
- ❖ Eremuaren tentsio onargarria: 0.3 kPa/m^2



1. Irudia. Portiko mota



2. Irudia. Eraikinaren goiko bista

Egitura 11 portikoz osatuta dago, 7 m-tako distantziara elkar-banaturik, beraz 10 bao dauzka. Egituraren luzera osoa kontuan hartuta (70 m) eta baita CTE-ren xedapenei kasu eginez, 40 m baino luzeagoak diren elementu estrukturalak debekatuta gelditzen dira, horregatik beharrezkoa da dilatazio junta baten erabilera. Junta hau, 6. portikoan kokatuko da eta tenperatura aldaketengatik eman daitezkeen luzetarako esfortzuak saihestuko ditu. Junta, luzetarako elementu guztietan jarriko da (petraletan, lotura habeetan eta habe gidarietan).

Albo itxiturak eta estalkiaren itxiturak, petralen bitartez lotuko diren Sandwich motako panelak izango dira. Petralak Z itxurako perfil konformatuak izango dira.

30 m-tako zabalera lortzeko, sekzio handiko perfilak ekidinez, sareta motako portikoak proposatzen dira.

Erabiliko diren altzairu motak:

- Z motatako perfil konformatuentzako (petralak): S235 altzairua erabiliko da ($f_y = 235 \text{ N/mm}^2$ eta $f_u = 360 \text{ N/mm}^2$).
- Gainerako estrukturarako: S275 ($f_y = 275 \text{ N/mm}^2$ eta $f_u = 410 \text{ N/mm}^2$).

3.2.2. AKZIOAK

Egituraren gain eragiten duten akzioak azaltzen dira jarraian. Hiru zatitan banatzen dira: akzio iraunkorrak, aldakorrak eta ustekabeko akzioak.

- **Akzio iraunkorrak:** etengabe eragiten ari diren akzioak dira. Euren balioa eta posizioa ez dira aldatzen. Akzio hauek, egitura osatzen duten elementu guztien pisu propioa hartzen dute barnean. Akzio hauek DB-SE-AE-ko 2. atalean deskribatzen dira.
- **Akzio aldakorrak:** euren balioa etengabe aldatzen ari da denboran zehar. Akzio hauen barnean, erabilera gainkarga, elurra eta haizearen eragina daude. Gainkarga hauek DB-SE-AE-ko 3. atalean deskribatzen dira.
- **Ustekabeko akzioak:** Efektu sismikoek edota suteek eragiten dituzten akzioak dira. Gainkarga hauek DB-SE-AE-ko 4. atalean deskribatzen dira.

Akzio guztiak, “**Documento Básico de Seguridad Estructural – Acciones en la Edificación**” (DB-SE-AE) araudia jarraituta kalkulatzeko dira.

Gainkargen konbinaketek eragiten duten efektuak baldintzatuko du elementu bakoitzaren dimentsionaketa.

3.2.2.1. Akzio iraunkorrak

3.2.2.1.1. Berezko pisua

Kontuan hartu beharreko pisu propioa, elementu estrukturalena, itxiturena eta banatze elementurena, trenkada multzoena, estalkiena... etab. elementurena da. Grabitatezko akzio bat ta, eta beraz, bertikalki eragiten du.

3.2.2.2. Akzio aldakorak

3.2.2.2.1. Erabilerako gainkarga

Erabiltzeko asmoarekin eraikinaren gain eragin dezakeen edozein pisuari egiten dio erreferentzia. Orokorrean, gainkarga honen ondorioak, uniformeki banatutako karga batek sortutakoekin parekatu daitezke.

Gainkargaren zenbakizkoa, DB-SE-AE-ren 3.1.atalean agertzen diren xedapenei jarraituz egiten da. Erabilera mailaren arabera, balio bat edo beste har dezake:

Tabla 3.1. Valores característicos de las sobrecargas de uso

Categoría de uso		Subcategorías de uso		Carga uniforme [kN/m ²]	Carga concentrada [kN]
A	Zonas residenciales	A1	Viviendas y zonas de habitaciones en, hospitales y hoteles	2	2
		A2	Trasteros	3	2
B	Zonas administrativas			2	2
C	Zonas de acceso al público (con la excepción de las superficies pertenecientes a las categorías A, B, y D)	C1	Zonas con mesas y sillas	3	4
		C2	Zonas con asientos fijos	4	4
		C3	Zonas sin obstáculos que impidan el libre movimiento de las personas como vestíbulos de edificios públicos, administrativos, hoteles; salas de exposición en museos; etc.	5	4
		C4	Zonas destinadas a gimnasio u actividades físicas	5	7
		C5	Zonas de aglomeración (salas de conciertos, estadios, etc)	5	4
D	Zonas comerciales	D1	Locales comerciales	5	4
		D2	Supermercados, hipermercados o grandes superficies	5	7
E	Zonas de tráfico y de aparcamiento para vehículos ligeros (peso total < 30 kN)			2	20 ⁽¹⁾
F	Cubiertas transitables accesibles sólo privadamente ⁽²⁾			1	2
G	Cubiertas accesibles únicamente para conservación ⁽³⁾	G1 ⁽⁷⁾	Cubiertas con inclinación inferior a 20°	1 ⁽⁴⁾⁽⁶⁾	2
		G2	Cubiertas ligeras sobre correas (sin forjado) ⁽⁶⁾	0,4 ⁽⁴⁾	1
				0	2

3. Irudia. Gainkarga erabileraren balio karakteristikoak

3.2.2.2.2. Eragin termikoa

Eraikinak berak eta bere elementu estrukturalak, ingurugiroko tenperatura aldaketengatik deformazio zein aldaketa geometrikoak jasan ditzakete. Azken hauen zenbatekoa, zenbait faktoreen arabera da: lekuko baldintza klimatologikoak, orientazioa, esposizioa, materialen ezaugarriak... etab.

Orokorrean, eraikin arruntetan, altzairuzko elementu estrukturalak, eragin termikoa mespretxatu daiteke betiere dilatazio juntak erabiltzen badira. Junta hauek, tenperaturaren aldaketagatik, elementu estrukturaletan sortu daitezkeen luzetarako esfortzu guztiak jasango dituzte.

Esandako guztia, DB-SE-AE-ko 3.4. atalean aurkitu daiteke.

3.2.2.2.3. Elurra

Elur gainkargaren distribuzioa zein intentsitatea, zenbait faktoreen arabera da: lekuko klimatologia, eurite mota, inguruaren erliebea, estalkiaren forma, haizearen eragina... etab.

Karga honen zenbatekoa, DB-SE-AE-ko 3.5. atala jarraituz egingo da.

3.2.2.2.4. Haizea

Haizeak eragiten dituen presioen distribuzioa eta zenbatekoa eta indar erresultanteak, eraikinaren forma eta dimentsioen arabera da.

Haizearen akzioa, eragiten duen gainazalarekiko perpendikularra da beti, eta DB-SE-AE-ko 3.3. atala jarraituz kalkulatu behar da.

3.2.2.3. Ustekabezko akzioak

3.2.2.3.1. Lurrikara

Lurrikara akzioak, NSCE "Norma de Construcción Sismo Resistente: Parte General y Edificación"-ari jarraituz araututa daude.

Indarrean dagoen araudiak, ordea, lurrikara akzioak mespretxatu daitezkeela dio. Izan ere, proiektuaren kokagunea, lurrikarak eratzeko arrisku gutxienekoa delako. Gainera, nabearen portikoak, ondo arriostatuta daudela suposatu behar dira.

3.2.2.3.2. Sutea

Sutearen ondorioz eragin daitekeen eraso termikoak sor ditzakeen akzioak, DB-SI dokumentuan definituta daude.

3.2.3. ESTALKIA

3.2.3.1. Estalkiaren itxitura

Estalkian erabiliko den itxitura, aurrez-fabrikatutako Sandwich motatako panela izango da. Arcelor Mittal-eko “Ondatherm 990C” motatako panela aukeratu da horretarako.



4. Irudia. Ondatherm 900C Sandwich motatako panela

“**Ondatherm 900 C**” 5%-ko inklinazio minimoa duten estalkientzako panela da. “Tapajunta” bidezko ezkutuko finkatzea dauka muntaia eta desmuntaia errazteko. Kanpoko txapa 0,6mm-takoa da haizea eta elurraren akzioen aurrean erresistentzia handitzeko.


Ezaugarri teknikoak, hurrengoak dira:

Propiedades del panel		Espesor nominal (mm)				
		30	40	50	80	100
Peso (kg/m ²)	Chapas 0,5/0,5 mm	11	11,4	11,8	13	13,8
Acústica	Atenuación acústica (ensayo para 60 mm, válido en cualquier espesor)	Rw 30dB				
Aislamiento térmico (con $\lambda = 0,041$ W/m.K)	Transmitancia térmica U (W/m ² .K)	0,68	0,53	0,43	0,27	0,23

5. Irudia. Ondatherm 900C Sandwich motatako panelaren ezaugarri teknikoak

80mm-tako lodiera duen panela aukeratuko da. Haren transmititze termikoa, 0,27 W/m²·K -ekoa da, berezko pisua 13 kg/m²-koa delarik.

Hurrengo erabilera taularen bitartez, panelak jasan dezakeen karga maximoa lortuko da. Jakinda gure estalkiaren neurria 15,23 m-takoa dela, gutxi gora behera, 1,5 m-tako distantzia aukeratuko dugu petralen artean, ahala, alde bakoitzean, 10 petral edukiko ditugularik.

TABLA DE UTILIZACIÓN		LUCES EN METROS							
SOPORTE	Espesor (mm)	1,5	2	2,5	3	3,5	4	4,5	5
	30	226	185	135	89				
	40	255	214	166	114	74	55		
	50	284	247	186	135	94	75		
	80	404	384	295	234	186	144	113	94
	100			403	294	225	174	143	116
	120			419	330	254	212	175	142
	150			435	379	293	263	216	180
	200			Bajo consulta					

6. Irudia. Ondatherm 900C Sandwich motatako panelaren erabilera taula

Itxitura zenbait petralen artean eutsita egongo da, beraz euskarri bat baino gehiago edukiko ditu. Hala ere, fabrikanteak 3 euskarri dituen itxitura bakarrik ematen du aukeran. Soluzio hau egokitzat hartuko dugu, izan ere, zenbat eta euskarri gehiago eduki, jasango duen karga handiagoa izango delako, eta beraz, segurtasun aldetik faboragarria izango delako. 80mm-tako lodiera duen panelak, petralak 1.5 m-tara daudela, 404 kg/m²-ko karga maximoa jasan ahal izango du.

3.2.3.2. Estalkiaren kalkuluak

Behin itxitura aukeratu dela, honen baieztapena egitea ezinbestekoa da. Horretarako, karga-hipotesiak aztertu behar dira, eta kritikoena aukeratu. Kritikoena, panelak jasan dezakeen karga maximoa baino txikiagoa bada, orduan aukeraketa egokia egin dela kontsideratzen da.

3.2.3.2.1. Akzioak

→ **Akzio iraunkorrak**

- Berezko pisua:

“Ondatherm 900 C” itxiturari, 80mm-tako lodierarekin, 13 kg/m²-ko berezko pisua dagokio. Dena den, estalkiak 10º-ko inklinazioa dauka horizontalarekiko. Horregatik, estalkiaren ardatz lokaletan deskonposatu beharko da berezko pisuaren karga. Ahala, bi motatako indarrak suertatuko dira: horizontalak eta perpendikularrak:

$$q_{pp} = 13 \frac{kg}{m^2} \cdot \frac{9,81 N}{1 kg} \cdot \frac{1 kN}{1000 N} = 0,1275 \frac{kN}{m^2}$$

Ardatz lokaletan deskonposatuz:

$$q_{pp\perp} = 0,1275 \cdot \cos 10 = 0,1256 \frac{kN}{m^2}$$

$$q_{pp\parallel} = 0,1275 \cdot \sin 10 = 0,0221 \frac{kN}{m^2}$$

→ **Akzio aldakorrak**

- Erabilera gainkarga:

Aurretik aipatu den bezala, erabilera gainkarga, estalkiaren erabileraren ondorioz estalkian bertan grabitatu dezakeen edozein pisu da. Zehatzago, gainkarga hau, estalkian edozein konponketa egin behar izatekotan, igoko direnen pertsonen eta baita makinariaren pisua kontsideratzen da.

Kasu honetan, jakinda estalkiaren pisua 0,1256 kN/m² -koa dela, estalki arin bezala hartu daiteke, izan ere, bere pisua 1 kN/m² -takoa baino txikiagoa baita.

Erabileraren gainkargaren balioa lortzeko, DB-SE-AE-ko 3.1. taulara jo behar da:

Tabla 3.1. Valores característicos de las sobrecargas de uso

Categoría de uso		Subcategorías de uso		Carga uniforme [kN/m ²]	Carga concentrada [kN]
A	Zonas residenciales	A1	Viviendas y zonas de habitaciones en, hospitales y hoteles	2	2
		A2	Trasteros	3	2
B	Zonas administrativas			2	2
C	Zonas de acceso al público (con la excepción de las superficies pertenecientes a las categorías A, B, y D)	C1	Zonas con mesas y sillas	3	4
		C2	Zonas con asientos fijos	4	4
		C3	Zonas sin obstáculos que impidan el libre movimiento de las personas como vestíbulos de edificios públicos, administrativos, hoteles; salas de exposición en museos; etc.	5	4
			Zonas destinadas a gimnasio u actividades físicas	5	7
		C5	Zonas de aglomeración (salas de conciertos, estadios, etc)	5	4
D	Zonas comerciales	D1	Locales comerciales	5	4
		D2	Supermercados, hipermercados o grandes superficies	5	7
E	Zonas de tráfico y de aparcamiento para vehículos ligeros (peso total < 30 kN)			2	20 ⁽¹⁾
F	Cubiertas transitables accesibles sólo privadamente⁽²⁾			1	2
G	Cubiertas accesibles únicamente para conservación ⁽³⁾	G1 ⁽⁷⁾	Cubiertas con inclinación inferior a 20°	1 ⁽⁴⁾⁽⁶⁾	2
			Cubiertas ligeras sobre correas (sin forjado) ⁽⁶⁾	0,4 ⁽⁴⁾	1
		G2	Cubiertas con inclinación superior a 40°	0	2

7. Irudia. Erabilera gainkargaren balioa

Estalkiaren inklinazioa 20° baino txikiagokoa izateaz aparte, esan bezala, estalki arina kontsideratzen da. Bi aukera agertzen dira, kontzentratutako karga (1 kN/m²) eta uniformeki banatutako karga (0,4 kN/m²). Berez, kalkuluak egiteko, uniformeki banatutako karga hartuko da kontuan, izan ere, kritikoagoa baita.

DB-SE-AE-tik lortutako balioak, estalkiaren proiektzio horizontalari dagokio. Horregatik, ardatz lokaletan deskonposatu beharko da berriro ere:

$$q_u = 0,4 \frac{kN}{m^2}$$

Ardatz lokaletan deskonposatuz:

$$q_{u\perp} = 0,4 \cdot \cos 10 \cdot \cos 10 = 0,3879 \frac{kN}{m^2}$$

$$q_{u\parallel} = 0,4 \cdot \cos 10 \cdot \sin 10 = 0,06840 \frac{kN}{m^2}$$

DB-SE-AE-tik ere, erabilera gainkarga gainontzeko kargekin ez-konkomitantea dela ondorioztatu daiteke.

- Elurra:

Elurra egotekotan, kokalekua eta baita estalkiaren inklinazioaren arabera elur-karga aukeratuko da.

Horretaz aparte, DB-SE-AE-k zehazten duen bezala, elurraren karga azalera unitateko proiektzio horizontalean:

$$q_n = \mu \cdot S_k$$

Non:

- **μ : Estalkiaren forma koefizientea den.** Koefiziente honen determinaziorako, kontuan hartu behar da estalkian irristatzeko eragozpenik dagoen edo ez. Kasu honetan, eragozpenik ez dagoela kontsideratzen da, eta gainera estalkiak 10° -ko inklinazioa duenez, forma koefizienteak 1 balioa hartuko du.
- **S_k : Elurraren gainkargaren balio karakteristikoa den.** Balio honen determinaziorako, DB-SE-AE-ren E eranskinera jo behar da. Nabea 1 motatako eremu klimatologikoan kokatzen da eta horretaz gain, eremu horren altitudea 0m-takoa izango da. Beraz, balore karakteristikoa $0,3 \text{ kN/m}^2$ -koa izango da.



8. Irdia. Zonalde klimatologikoa

Altitud (m)	Zona de clima invernal, (según figura E.2)						
	1	2	3	4	5	6	7
0	0,3	0,4	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2
200	0,5	0,5	0,2	0,2	0,3	0,2	0,2
400	0,6	0,6	0,2	0,3	0,4	0,2	0,2
500	0,7	0,7	0,3	0,4	0,4	0,3	0,2
600	0,9	0,9	0,3	0,5	0,5	0,4	0,2
700	1,0	1,0	0,4	0,6	0,6	0,5	0,2
800	1,2	1,1	0,5	0,8	0,7	0,7	0,2
900	1,4	1,3	0,6	1,0	0,8	0,9	0,2
1.000	1,7	1,5	0,7	1,2	0,9	1,2	0,2
1.200	2,3	2,0	1,1	1,9	1,3	2,0	0,2
1.400	3,2	2,6	1,7	3,0	1,8	3,3	0,2
1.600	4,3	3,5	2,6	4,6	2,5	5,5	0,2
1.800	-	4,6	4,0	-	-	9,3	0,2
2.200	-	8,0	-	-	-	-	-

9. Irudia. Altitudearen arabeko elurraren balore karakteristikoak

Beraz:

$$q_n = \mu \cdot S_k = 1 \cdot 0,3 = 0,3 \frac{kN}{m^2}$$

$$q_{n\perp} = 0,3 \cdot \cos 10 \cdot \cos 10 = 0,2909 \frac{kN}{m^2}$$

$$q_{n\parallel} = 0,3 \cdot \cos 10 \cdot \sin 10 = 0,0513 \frac{kN}{m^2}$$

○ Haizea:


Haizearen gainkarga, edozein gainazalarekiko elkartut eragiten duen indarra da. Indarrean dagoen araudiari men eginez, hurrengo adierazpenarekin definitzen da:

$$q_e = q_b \cdot c_e \cdot c_p$$

Non:

- **q_b: Haizearen presio dinamikoa den.** DB-SE-AE-ren D eranskinean aipatzen da eta eremu eolikoaren arabeko balioa izango da. Hurrengo irudian ikusten den bezala, eremu bakoitzari haizearen abiadura balio bat dagokio. Eraikina kasu honetan C eremuan kokatuko denez: 0,52 m/s-ko abiadura dagokio.

El valor básico de la velocidad del viento en cada localidad puede obtenerse del mapa de la figura D.1. El de la presión dinámica es, respectivamente de 0,42 kN/m², 0,45 kN/m² y 0,52 kN/m² para las zonas A, B y C de dicho mapa.



10. Irudia. Haizearen abiaduraren balio basikoa

- ce: Esposizio koefizientea den.** Bere balioa lortzeko, DB-SE-AE-ren 3.3.3. atala jarraituko da. Koefiziente honek, erliebearen eta lurzorua topografiaren ondorioz sortu daitezkeen turbulentsiak kontuan hartzen ditu. Eraikinaren altuera ez da 30 m baino altuagoa, beraz, bere balioa hurrengo taulatik lortu daiteke. Eraikinak, 17,645 m-tako altuera dauka, beraz, interpolatu beharko da esposizio koefizientea lortzeko:

Grado de aspereza del entorno	Altura del punto considerado (m)							
	3	6	9	12	15	18	24	30
I Borde del mar o de un lago, con una superficie de agua en la dirección del viento de al menos 5 km de longitud	2,4	2,7	3,0	3,1	3,3	3,4	3,5	3,7
II Terreno rural llano sin obstáculos ni arbolado de importancia	2,1	2,5	2,7	2,9	3,0	3,1	3,3	3,5
III Zona rural accidentada o llana con algunos obstáculos aislados, como árboles o construcciones pequeñas	1,6	2,0	2,3	2,5	2,6	2,7	2,9	3,1
IV Zona urbana en general, industrial o forestal	1,3	1,4	1,7	1,9	2,1	2,2	2,4	2,6
V Centro de negocio de grandes ciudades, con profusión de edificios en altura	1,2	1,2	1,2	1,4	1,5	1,6	1,9	2,0

11. Irudia. Esposizio koefizientearen balioak

Nabe industrialia kokatuko den gunea industrialdea da, beraz laztasun maila IV izango da. Interpolatu eta gero, c_e -ren balioa: 2.16 da.

- **c_p : Koefiziente eolika den.** Bere balioa lortzeko, DB-SE-AE-ren 3.3.4.eta 3.3.5. atalak jarraituko dira. Koefiziente hau, haizearen norabidearen arabera izango da, baita egituraren formaren arabera ere. Hala ere, kalkuluak egin aurretik, DB-SE-AE-ko xehetasunak argitu behar dira puntuz-puntu.


- 1 En naves y construcciones diáfanos, sin forjados que conecten las fachadas, la acción de viento debe individualizarse en cada elemento de superficie exterior. Cuando en al menos dos de los lados del edificio (fachadas o cubiertas) el área total de los huecos exceda el 30% del área total del lado considerado, la acción del viento se determina considerando la estructura como una marquesina o una pared libre.
- 2 A efectos del cálculo de la estructura, del lado de la seguridad se podrá utilizar la resultante en cada plano de fachada o cubierta de los valores del Anejo D.3, que recogen el pésimo en cada punto debido a varias direcciones de viento. A los efectos locales, tales como correas, paneles de cerramiento, o anclajes, deben utilizarse los valores correspondientes a la zona o zonas en que se encuentra ubicado dicho elemento.
- 3 Si el edificio presenta grandes huecos la acción de viento genera, además de presiones en el exterior, presiones en el interior, que se suman a las anteriores.

El coeficiente eólico de presión interior, c_{pi} , se considera único en todos los en todos los paramentos interiores del edificio que delimitan la zona afectada por la fachada o cubierta que presenta grandes huecos. Para la determinación de la presión interior, en edificios de una sola planta, se considerará como coeficiente de exposición el correspondiente a la altura del punto medio del hueco, salvo que exista un hueco dominante, en cuyo caso el coeficiente de exposición será el correspondiente a la altura media de dicho hueco. Si el edificio tiene varias plantas se considerara la altura media de la planta analizada. Un hueco se considera dominante si su área es por lo menos diez veces superior a la suma de las áreas de los huecos restantes.

- 4 Cuando el área de las aberturas de una fachada sea el doble de las aberturas en el resto de las fachadas del edificio, se tomará $c_{pi} = 0,75c_{pe}$; si es el triple $c_{pi} = 0,9c_{pe}$ siendo c_{pe} el coeficiente eólico de presión exterior. En casos intermedios se interpolará linealmente. En otro caso se tomarán los valores de la tabla 3.6

Tabla 3.6 Coeficientes de presión interior

Esbeltez en el plano paralelo al viento	Área de huecos en zonas de succión respecto al área total de huecos del edificio											
	0,0	0,1	0,2	0,3	0,4	0,5	0,6	0,7	0,8	0,9	1	
≤ 1	0,7	0,7	0,6	0,4	0,3	0,1	0,0	-0,1	-0,3	-0,4	-0,5	
≥ 4	0,5	0,5	0,4	0,3	0,2	0,1	0,0	-0,1	-0,2	-0,3	-0,3	



12. Irudia. Barneko presioaren koefizientearen balioak

1. atala: Ez daude etengabe zabalik dauden baoak, beraz, egitura nabe bezala aztertuko da. Edukiko duen ate bakarra garraiorako izango da, albo batean kokatuta egongo dena.

2. atala: D3 eranskinari erreferentzia egiten dio. Eranskin honen bitartez, kanpoko presio koefizientea lortzen da estalkiaren gune bakoitzeko.

3. atala: barneko presio koefizienteari egiten dio erreferentzia. Ez da zehazten zeri deritzon "bao handia" baina dena den, garraiorako atea bao handia kontsideratuko da.


4. atala: barneko presio koefizientearen kalkulurako parametroak zehazten dira.

Behin DB-SE-AEn jarritakoa argitu dela, bai kanpoko zein barneko presio koefizienteak kalkulatu dira.

- **c_{pe}: kanpoko presio koefizientea**

Eraikina bi isurkietara diseinatuko da. Beraz, DB-SE-AE-ko D3.eranskinera jo behar da koefiziente honen balioa lortzeko. Bertan dagoen taulan, kanpoko presio koefizientearen balio ezberdinak agertzen dira. Kasu honetan, estalkiaren inklinazioa 10º-takoa izateagatik eta azalera >10 m²-takoa izateagatik, beharrezkoa da balioak interpolatzea eremu bakoitzerako:

HAIZEA ZEHARKA




13. Irudia. Kanpoko presio koefizienteak haizea zeharka

Kanpoko haizea: Zeharka $-45^\circ \leq \theta \leq 45^\circ$			
$b = 70$ $h = 17.645$ $e = 2h = 35.29$ $d = 30$	ZONALDEA	C_{pe} xurgatze	C_{pe} presio
	F	-1,3	0,1
	G	-1	0,1
	H	-0,45	0,1
	I	-0,5	-0,3
J	-0,4	-0,3	

1. Taula. Kanpoko presio koefizienteak haizea zeharka xurgapen zein presio

HAIZEA LUZETARA



5°	≥ 10	-1.6	-1.3	-0.7	-0.6
	≤ 1	-2.2	-2.0	-1.2	-0.6
15°	≥ 10	-1.3	-1.3	-0.6	-0.5
	≤ 1	-2.0	-2.0	-1.2	-0.5

14. Irudia. Kanpoko presio koefizienteak haizea luzetara

Kanpoko haizea: Luzetara $45^\circ \leq \theta \leq 135^\circ$		
$b = 30$ $h = 17.645$ $e = b = 30$ $d = 70$	ZONALDEA	C_{pe} xurgatze
	F	-1,45
	G	-1,3
	H	-0,65
I	-0,6	

2. Taula. Kanpoko presio koefizienteak haizea luzetara

Laburbilduz:

c_{pe} KOEFIZIENTEAK KANPOKO HAIZERAKO			
ZONALDEA	HAIZEA ZEHARKA		HAIZEA LUZETARA
	c_{pe} Xurgatze	c_{pe} presio	c_{pe} Xurgatze
F	-1,3	0,1	-1,45
G	-1	0,1	-1,3
H	-0,45	0,1	-0,65
I	-0,5	-0,3	-0,6
J	-0,4	-0,3	-

3. Taula. Kanpoko presio koefizienteen laburpena

Jakinda, beraz, haizearen karga hurrengo adierazpenarekin definitzen dela:

$$q_{haizea_kanpo} = q_b \cdot c_e \cdot c_{pe} \rightarrow q_b = 0,52 \frac{kN}{m^2} ; c_e = 2.16$$

Hurrengo karga balioak lortuko dira kanpoko haizearentzako:

Kanpoko haizerako karga balioak kN/m²			
ZONALDEA	HAIZEA ZEHARKA		HAIZEA LUZETARA
	Xurgatze	Presio	Xurgatze
F	-1,4642	0,1126	-1,6332
G	-1,1263	0,1126	-1,4642
H	-0,5068	0,1126	-0,7321
I	-0,5632	-0,3379	-0,6758
J	-0,4505	-0,3379	-


4. Taula. Kanpoko haizerako karga balioak

- **c_{pi}: barneko presio koefizientea**

DB-SE-AE-ren 3.3.5. atalean agertzen diren xedapenei begira, aztertuko da zeintzuk diren eraikinaren baoak. Kasu honetan, 7x6 m²-ko atea dago eraikinaren eskumako aurpegian. Hau izango da bao handitzat hartuko den hutsune bakarra.

Barneko presio koefizientea bakarra izango da eta eraikineko elementu guztiei berdin eragingo die. Horretarako, atea guztiz zabalik dagoela kontsideratuko da, hori baita egoerarik kritikoena.

Esbeltez en el plano paralelo al viento	Área de huecos en zonas de succión respecto al área total de huecos del edificio											
	0,0	0,1	0,2	0,3	0,4	0,5	0,6	0,7	0,8	0,9	1	
≤1	0,7	0,7	0,6	0,4	0,3	0,1	0,0	-0,1	-0,3	-0,4	-0,5	
≥4	0,5	0,5	0,4	0,3	0,2	0,1	0,0	-0,1	-0,2	-0,3	-0,3	



15. Irudia. Barneko presio koefizienteak

Hurrengo parametroak definitzen dira:

- h Eraikinaren altuera
- h/b Haizearen plano paraleloan lerdentasuna
- c Erlazio koefizientea

4 kasu ezberdin bereiztuko dira:

1. Haizea zeharka ezkerretik

Barnean xurgapena emango da eta erlazio koefizientea, $c = 1$ izango da. h/b , ordea:

$$\frac{h}{b} = \frac{17.645}{30} = 0.588 < 1$$

Beraz, $c_{pi} = -0,5$

2. Haizea zeharka eskumatik

Barnean presioa emango da eta erlazio koefizientea, $c = 0$ izango da. h/b , ordea:

$$\frac{h}{b} = \frac{17.645}{30} = 0.588 < 1$$

Beraz, $c_{pi} = 0,7$

3. Haizea luzetara aurretik

Barnean xurgapena emango da eta erlazio koefizientea, $c = 1$ izango da. h/b , ordea:

$$\frac{h}{b} = \frac{17.645}{70} = 0.252 < 1$$

Beraz, $c_{pi} = -05$

4. Haizea luzetara atzetik

Barnean xurgapena emango da eta erlazio koefizientea, $c = 1$ izango da. h/b , ordea:

$$\frac{h}{b} = \frac{17.645}{70} = 0.252 < 1$$

Beraz, $c_{pi} = -05$

Laburbilduz:

c _{pi} KOEFIZIENTEAK BARNEKO HAIZERAKO			
KASUA	HAIZEA ZEHARKA		HAIZEA LUZETARA
	c _{pi} xurgatze	c _{pi} presio	c _{pi} xurgatze
1.	-0,5		
2.		0,7	
3.			-0,5
4.			-0,5

5. Taula. Barneko haizerako koefizienteak

$$q_{haizea_barne} = q_b \cdot c_e \cdot c_{pi} \rightarrow q_b = 0,52 \frac{kN}{m^2} ; c_e = 1,3$$

Beraz, kargak:

Barneko haizerako karga balioak kN/m ²			
KASUA	HAIZEA ZEHARKA		HAIZEA LUZETARA
	Xurgatze	Presio	Xurgatze
1.	-0,338		
2.		0,4732	
3.			-0,338
4.			-0,338

6. Taula. Barneko haizerako karga balioak

Ikusten den bezala, 3. eta 4. kasuak berdinak dira.

Beraz, haizearen erresultanteak lortzeko:

$$q_{haizea} = q_{haizea_{kanpo}} - q_{haizea_{barne}}$$

Taula batean kasuak laburbilduz, eraikinaren eremu bakoitzerako karga erresultanteak lortu daitezke:

1º KASUA: Haizea zeharka ($q_{barne} = -0.338 \text{ kN/m}^2$) → Kargak		
	<i>Presio</i>	<i>Xurgapen</i>
F	0,450632	-1,126216
G	0,450632	-0,78832
H	0,450632	-0,168844
I	0,000104	-0,22516
J	0,000104	-0,112528

7. Taula. 1. Kasurako karga balioak

2º KASUA: Haizea zeharka ($q_{barne} = 0.4732 \text{ kN/m}^2$) → Kargak		
	<i>Presio</i>	<i>Xurgapen</i>
F	-0,360568	-1,937416
G	-0,360568	-1,59952
H	-0,360568	-0,980044
I	-0,811096	-1,03636
J	-0,811096	-0,923728

8. Taula. 2. Kasurako karga balioak

3º KASUA: Haizea luzetara ($q_{barne} = -0.338 \text{ kN/m}^2$) → Kargak	
	<i>Xurgapen</i>
F	-1,295164
G	-1,126216
H	-0,394108
I	-0,337792
J	

9. Taula. 3. Kasurako karga balioak

Beraz, laburbilduz, lortuko diren haize karga kritikoenak bai presiorako zein xurgapenerako hurrengoak izango dira:

$$q_{vp} = 0,4506 \frac{kN}{m^2}$$

$$q_{vs} = -1,937 \frac{kN}{m^2}$$

3.2.3.2.1. Akzioen laburpena

	KARGEN BALIOAK (kN/m ²)		
	AKZIO IRAUNKORRAK	AKZIO ALDAKORRAK	
	Berezko pisua	Erabilera	Elurra
Perpendikular	0,125592533	0,387938524	0,290953893
Paralelo	0,022145352	0,068404029	0,051303021

10. Taula. Karga guztien laburpena

Haizea (kN/m ²)	
Presio	Xurgapen
0,450632	-1,937416

11. Taula. Haizearen karga

3.2.3.2.3. Kargen konbinaketak eta itxituraren baieztapena

Atal honetan, kargaren konbinaketa ezberdinak aztertzen dira panelaren berezko pisua kontuan hartu barik. Konbinaketak, CTE-ren DB-SE-ren eskakizunei jarraituta lortzen dira.

Egoera iraunkor edota iragankor bati dagozkion kalkulu balioak, hurrengo adierazpenarekin lortzen dira:

$$\sum_{j \geq 1} \gamma_{G,j} \cdot G_{k,j} + \gamma_P \cdot P + \gamma_{Q,1} \cdot Q_{k,1} + \sum_{i > 1} \gamma_{Q,i} \cdot \psi_{0,i} \cdot Q_{k,i}$$

Hau da, hurrengo akzioen aldibereko eragina:

- Akzio iraunkor guztiak, kalkulu balorearekin ($\gamma_{G,j} \cdot G_{k,j}$), aurrez-tenkatzearekin ($\gamma_P \cdot P$).
- Edozein akzio aldakorra, kalkulu balorearekin ($\gamma_{Q,1} \cdot Q_{k,1}$), analisi ezberdinetan egokitu behar izanarekin.
- Gainontzeko akzio aldakorrak, konbinaketa kalkulu balorearekin ($\gamma_{Q,i} \cdot \Psi_{0,i} \cdot Q_{k,i}$).

Segurtasun koefizienteen balioak, γ , hurrengo taulan zehazten dira. Akzio bakoitzaren araberako koefizienteak dira, baita hauen izaeraren (faboragarria/desfaboragarria) araberakoak ere.

Tipo de verificación ⁽¹⁾	Tipo de acción	Situación persistente o transitoria	
		desfavorable	favorable
Resistencia	Permanente		
	Peso propio, peso del terreno	1,35	0,80
	Empuje del terreno	1,35	0,70
	Presión del agua	1,20	0,90
	Variable	1,50	0
Estabilidad		desestabilizadora	estabilizadora
	Permanente		
	Peso propio, peso del terreno	1,10	0,90
	Empuje del terreno	1,35	0,80
	Presión del agua	1,05	0,95
	Variable	1,50	0

⁽¹⁾ Los coeficientes correspondientes a la verificación de la resistencia del terreno se establecen en el DB-SE-C

12. Taula. Segurtasun koefizienteen balioak

Aldibereko akzioen koefizienteak, hurrengo taulan zehazten dira:

	Ψ_0	Ψ_1	Ψ_2
Sobrecarga superficial de uso (Categorías según DB-SE-AE)			
• Zonas residenciales (Categoría A)	0,7	0,5	0,3
• Zonas administrativas (Categoría B)	0,7	0,5	0,3
• Zonas destinadas al público (Categoría C)	0,7	0,7	0,6
• Zonas comerciales (Categoría D)	0,7	0,7	0,6
• Zonas de tráfico y de aparcamiento de vehículos ligeros con un peso total inferior a 30 kN (Categoría E)	0,7	0,7	0,6
• Cubiertas transitables (Categoría F)		⁽¹⁾	
• Cubiertas accesibles únicamente para mantenimiento (Categoría G)	0	0	0
Nieve			
• para altitudes > 1000 m	0,7	0,5	0,2
• para altitudes ≤ 1000 m	0,5	0,2	0
Viento	0,6	0,5	0
Temperatura	0,6	0,5	0
Acciones variables del terreno	0,7	0,7	0,7

⁽¹⁾ En las cubiertas transitables, se adoptarán los valores correspondientes al uso desde el que se accede.

13. Taula. Aldibereko akzioen koefizienteak

Mantenurako soilik erabiliko den estalkia denez, erabileraren akzioa ez da gainontzekoekin konkomitantea izango. Hau da, mantentze langileak ezin izango dira estalkira igo elurteetan edota haizea gogor jotzen duen egunetan. Horregatik, estalkiaren gain eragina izango duten akzioak konbinatzerakoan, 15 konbinazio bakarrik baieztatu beharko dira. 3 osagai dituzten akzioen konbinaketan balioak, 4 osagai dituzten konbinazioen balioak baino handiagoak izango dira.

1. $\gamma_G \cdot q_{pp}$
2. $\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_u \cdot q_u$
3. $\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_n \cdot q_n$
4. $\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_{vs} \cdot q_{vs}$
5. $\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_{vp} \cdot q_{vp}$
6. $\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_u \cdot q_u + \gamma_n \cdot \psi_0 \cdot q_n$
7. $\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_u \cdot q_u + \gamma_{vp} \cdot \psi_0 \cdot q_{vp}$
8. $\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_u \cdot q_u + \gamma_{vs} \cdot \psi_0 \cdot q_{vs}$
9. $\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_n \cdot q_n + \gamma_u \cdot \psi_0 \cdot q_u$
10. $\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_n \cdot q_n + \gamma_{vp} \cdot \psi_0 \cdot q_{vp}$
11. $\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_n \cdot q_n + \gamma_{vs} \cdot \psi_0 \cdot q_{vs}$
12. $\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_{vp} \cdot q_{vp} + \gamma_n \cdot \psi_0 \cdot q_n$
13. $\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_{vp} \cdot q_{vp} + \gamma_u \cdot \psi_0 \cdot q_u$
14. $\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_{vs} \cdot q_{vs} + \gamma_n \cdot \psi_0 \cdot q_n$
15. $\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_{vs} \cdot q_{vs} + \gamma_u \cdot \psi_0 \cdot q_u$

Momentuz, 4., 10. eta 12. ekuazioak bakarrik hartuko dira kontuan. Izan ere, gainontzekoak logikaz baztertu daitezkeelako. Karga bakoitzaren balioak sartuta, lortu daiteke zein izango den panelak jasan beharko duen karga maximoa:

$$4. \underline{\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_{vs} \cdot q_{vs}}$$

$$\text{Norabide perpendikularrean} \rightarrow 0.8 \cdot 0.1255 + 1.5 \cdot (-1.937) = -2,805 \text{ kN/m}^2$$

$$\text{Norabide paraleloan} \rightarrow 0.8 \cdot 0.0221 = 0.0177 \text{ kN/m}^2$$

$$10. \underline{\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_n \cdot q_n + \gamma_{vp} \cdot \psi_0 \cdot q_{vp}}$$

$$\text{Perpendikular} \rightarrow 1.35 \cdot 0.1255 + 1.5 \cdot 0.2909 + 1.5 \cdot 0.6 \cdot 0.4506 = 1.011 \text{ kN/m}^2$$

$$\text{Paralelo} \rightarrow 1.35 \cdot 0.0221 + 1.5 \cdot 0.051 = 0.1068 \text{ kN/m}^2$$

$$12. \underline{\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_{vp} \cdot q_{vp} + \gamma_n \cdot \psi_0 \cdot q_n}$$

$$\text{Perpendikular} \rightarrow 1.35 \cdot 0.1255 + 1.5 \cdot 0.4506 + 1.5 \cdot 0.5 \cdot 0.2909 = 1.063 \text{ kN/m}^2$$

$$\text{Paralelo} \rightarrow 1.35 \cdot 0.0221 + 1.5 \cdot 0.5 \cdot 0.051 = 0.208 \text{ kN/m}^2$$

Beraz, baliorik kritikoena, 4.konbinaketan emango da eta kargaren balioa -2.872 kN/m²-koa izango da. Beraz, baieztatu behar da panelak karga hori jasango duela. Jakinda:


- Panelak jasan dezakeen karga maximoa: 404 kg/m² = 3.96 kN/m²
- Akzioen karga maximoa: 2.805 kN/m²

Beraz, **2.805 kN/m² < 3.96 kN/m²** denez, panela modu egokian aukeratu da.

3.2.4. Fatxada

3.2.4.1. Fatxadaren itxitura

Itxiturentzako aukeratutako panela “Nereo Plus” serieko panela izango da, “EUROPERFIL” markakoa.



16. Irudia. “Nereo Plus” motatako perfila 3D bistan

Panelaren fitxa teknikoan agertzen diren ezaugarri teknikoak hurrengoak dira.

Características físicas panel:			
Peso Panel (kg/m ²)	Espesor del panel (mm)		
Esp. Ext: 0,50 mm	30	40	50
A. Útil: 1.100 mm	6,58	6,98	7,38

17. Irudia. "Nereo Plus" panelaren ezaugarri fisikoak

Transmitantzia termikoa, panelaren lodieraren arabera da:

Espesor panel (mm)	30	40	50
Valor U (W/m ² *K)	0,72	0,55	0,45

18. Irudia. "Nereo Plus" panelaren transmitantzia termikoa

Datu hauek ikusita, 50mm-tako panela aukeratuko da, zeinak 0,45 W/m²K-ko transmitantzia termikoa edukiko duen. Haren berezko pisua, bestalde, 7,38 kg/m²-tako izango da. Hurrengo taularekin ondorioztatuko da zein izango den panelaren karga maximoa, jakinda, petralak 1,5 m-tara kokatuko direla:

Esp. Panel (mm):	Luz máxima admisible a vano simple o doble (m)								
	1,00	1,25	1,50	1,75	2,00	2,25	2,50	2,75	3,00
30	664	423	293	214	163	128	103	84	70
40	726	463	320	234	178	140	112	92	77
50	775	494	342	250	190	149	120	98	82

19. Irudia. "Nereo Plus" panelaren gaitasuna petralen arteko distantziaren arabera

Unitateak daN/m²-koa da, beraz, dagokion karga kN/m²-tan, 342 kN/m²-koa izango da. Petral bat baino gehiagorekin egongo da eutsita, eta beraz, euskarri bat baino gehiago edukiko ditu.

3.2.4.2. Fatxadaren kalkuluak

Behin fatxadaren itxitura aukeratu dela, hura baieztatu behar da. Estalkiaren itxitura baieztatzeke eman diren pauso berdinak jarraituko dira: lehenengo gainkargak planteatuko dira, eta ondoren konbinaketen emaitzekin karga maximoarekin konparatu.

Kargaren determinaziorako, aztertu behar dira estalkian aplikatu diren kargak, izan ere, alboko-itxituren gain eragingo duten kargak, estalkian eragingo duten berdinak baitira. Dena den, logikaz elurraren eta erabileraren kargak deuseztatu egingo dira.

Ondorioz, alboko-itxituren gain eragingo duten kargak: berezko pisua eta haizea izango dira.

3.2.4.2.1. Akzioak

→ **Akzio iraunkorrak**

- Berezko pisua

Aukeratutako panelaren ezaugarriei begira, jakinda 50 mm-tako lodiera duela, 7,38 kg/m²-tako pisua dagokio:

$$q_{pp} = 7,38 \frac{kg}{m^2} \cdot \frac{9,81 N}{1 kg} \cdot \frac{1 kN}{1000 N} = 0,0723 \frac{kN}{m^2}$$

Berezko pisua bertikalki eragingo du alboko-itxituren gain karga grabitatorioa kontsideratzen baita. Beraz, alboko-itxiturekiko paralelo eragingo du:

$$q_{pp\parallel} = 0,0723 \frac{kN}{m^2}$$

→ **Akzio aldakorrak**

- Haizea:

Haizearen gainkarga, edozein gainazalarekiko elkartut eragiten duen indarra da. Indarrean dagoen araudiari men eginez, hurrengo adierazpenarekin definitzen da:

$$q_e = q_b \cdot c_e \cdot c_p$$

Ez dira haizearen presio dinamikoaren (q_b), ezta esposizio koefizienteen (c_e) balioak berriro kalkulatu behar, estalkiaren gainkargak kalkulatzeko hartutako balio berdinak baitira.

$$q_b = C_{zonaldea} = 0,52 \frac{kN}{m^2}$$

$$c_e \rightarrow \text{Altuera } 17,645 \text{ m} = 2,16$$


$$c_e \rightarrow \text{Altuera } 15 \text{ m} = 2,1$$

Presiozko koefiziente eolikoa ez da konstante mantenduko, beraz kalkulatu beharko da.

• **C_{pe} kanpoko presio koefizientea:**

Kanpoko presio koefizienteen kalkulurako, CTE-ren DB-SE-AE-ren D3 eranskina hartu behar da kontuan. Bi kasu ezberdin bereiztu beharko dira, haizea zeharka eta haizea luzetara.

HAIZEA ZEHARKA



20. Irudia. Haizea zeharka. Alboko itxiturak.

Non:

$$e = \min(b, 2h) = 11.76 \cdot 2 = 23.52$$

A (m ²)	h/d	Zona (según figura), $-45^\circ < \theta < 45^\circ$				
		A	B	C	D	E
≥ 10	5	-1,2	-0,8	-0,5	0,8	-0,7
	1	"	"	"	"	-0,5
5	≤ 0,25	"	"	"	0,7	-0,3
	5	-1,3	-0,9	-0,5	0,9	-0,7
2	1	"	"	"	"	-0,5
	≤ 0,25	"	"	"	0,7	-0,3
≤ 1	5	-1,4	-1,1	-0,5	1,0	-0,7
	1	"	"	"	"	-0,5
	≤ 0,25	"	"	"	"	-0,3


21. Irudia. Haizea zeharka. Koefizienteen balioak.

Beraz jakinda $h/d = 0,588$ -koa dela, interpolatuz:

Kanpoko haizea: Zeharka $-45^\circ \leq \theta \leq 45^\circ$		
	ZONALDEA	C _{pe}
b = 70 h = 17.645 e = 2h = 35.29 d = 30 h/d = 0.588	A	-1,2
	B	-0,8
	C	-0,5
	D	0,745
	E	-0,48

14. Taula. Haizea zeharka koefizienteen laburpena

HAIZEA LUZETARA:



A (m ²)	h/d	Zona (según figura), $-45^\circ < \theta < 45^\circ$				
		A	B	C	D	E
≥ 10	5	-1,2	-0,8	-0,5	0,8	-0,7
	1	"	"	"	"	-0,5
	≤ 0,25	"	"	"	0,7	-0,3
5	5	-1,3	-0,9	-0,5	0,9	-0,7
	1	"	"	"	"	-0,5
	≤ 0,25	"	"	"	0,8	-0,3
2	5	-1,3	-1,0	-0,5	0,9	-0,7
	1	"	"	"	"	-0,5
	≤ 0,25	"	"	"	0,7	-0,3
≤ 1	5	-1,4	-1,1	-0,5	1,0	-0,7
	1	"	"	"	"	-0,5
	≤ 0,25	"	"	"	"	-0,3

22. Irudia. Haizea luzeetara. Koefizienteen balioak

$$e = \min(b, 2h) = b = 30$$

Kanpoko haizea: luzetara $135^\circ \leq \theta \leq 45^\circ$		
b = 30 h = 17.645 e = b = 30 d = 70 h/d = 0.252	ZONALDEA	C_{pe}
	A	-1,2
	B	-0,8
	C	-0,5
	D	0,7
E	-0,3	

14. Taula. Haizea luzeetara koefizienteen laburpena

Azalerak 10 m^2 baino handiagoak dira bai haizea luzeetara doanean eta baita haizea zeharka doanean ere. Beraz, behin kanpoko presio koefizienteak lortuta, kargen balioak kalkulatu behar dira:

KANPOKO HAIZEA		
ZONALDEA	C_{pe} (haizea zeharka)	C_{pe} (haizea luzetara)
A	-1,2	-1,2
B	-0,8	-0,8
C	-0,5	-0,5
D	0,745	0,7
E	-0,48	-0,3

15. Taula. Kanpoko haizearen presio koefizienteak

Zonalde bakoitza dagokion esposizio koefizienteagatik eta baita presio dinamikoaren koefizienteagatik biderkatuta, zonalde bakoitzaren kanpoko haizearen kargak lortuko dira.

KANPOKO HAIZEAREN KARGAK (kN/m²)		
ZONALDEA	q (haizea zeharka)	q (haizea luzetara)
A	-1,3516	-1,31040
B	-0,9011	-0,87360
C	-0,5632	-0,54600
D	0,8135	0,78842
E	-0,5242	-0,33790

16. Taula. Kanpoko haizearen karga balioak

- **C_{pi} barneko presio koefizientea:**

Estalkian kalkulaturako balio berdina hartuko du koefiziente honek.
Bergogorazariz:

c_{pi} KOEFIZIENTEAK BARNEKO HAIZERAKO			
KASUA	HAIZEA ZEHARKA		HAIZEA LUZETARA
	c _{pi} xurgatze	c _{pi} presio	c _{pi} xurgatze
1.	-0,5		
2.		0,7	
3.			-0,5
4.			-0,5

17. *Taula.* Barneko haizearen presio koefizienteak

Eta kargak:

BARNEKO HAIZEAREN KARGAK (kN/m²)	
KASUA	Kargak
1.	-0,338
2.	0,4732
3.	-0,338
4.	-0,338

18. *Taula.* Barneko haizearen kargen balioak

Beraz, emaitzak:

$$q_{haizea} = q_{haizea_{kanpo}} - q_{haizea_{barne}}$$

1º KASUA: Haizea zeharka (q_{barne} = -0.338 kN/m²) → Kargak	
A	-1,0136
B	-0,5631
C	-0,2252
D	1,1515
E	-0,1862

19. *Taula.* 1.kasuko kargen emaitzak

2º KASUA: Haizea zeharka ($q_{\text{barne}} = 0.473 \text{ kN/m}^2$) → Kargak	
A	-1,8248
B	-1,3743
C	-1,0364
D	0,3403
E	-0,9974

20. Taula. 2.kasuko kargen emaitzak

3º KASUA: Haizea luzetara ($q_{\text{barne}} = -0.338 \text{ kN/m}^2$) → Kargak	
A	-0,97240
B	-0,87360
C	-0,54600
D	0,78842
E	-0,33790

21. Taula. 3.kasuko kargen emaitzak

3.2.4.2.2. Akzioen laburpena

Hurrengo taulan laburbiltzen dira alboko itxiturengain eragingo duten karga totalak:

	AKZIO IRAUNKORRAK (kN/m^2) Berezko pisua
Paralelo	0,0723

22. Taula. Akzio iraunkorrak

AKZIO ALDAKORRAK (kN/m^2)	
Haizea presio	Haizea xurgapen
1,15	-1,82

23. Taula. Akzio aldakorrak

3.2.4.2.3. Kargen konbinaketak eta itxituraren baieztapena

Estalkian planteatu diren konbinazioekiko ezberdintasun bakarra, oraingoan bi karga bakarrik konbinatu daitezkeela izango da (berezko pisua eta haizea). Horregatik, ez dira aldebereko koefizienteen balioak lortu beharko.

Lortu daitezkeen konbinaketak, beraz:

$$1. \gamma_G \cdot q_{pp}$$

$$4. \gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_{vs} \cdot q_{vs}$$

$$5. \gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_{vp} \cdot q_{vp}$$

Logikoki, lehenengo konbinaketa baliorik txikiena duena izango da. Beraz, 4. eta 5. konbinaketak aztertuko dira:

$$4. \underline{\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_{vs} \cdot q_{vs}}$$

$$\text{Perpendikular} \rightarrow \gamma_{vs} \cdot q_{vs} = 1.5 \cdot (-1,82) = -2,737 \text{ kN/m}^2$$

$$\text{Paralelo} \rightarrow \gamma_G \cdot q_{pp} = 0.8 \cdot 0.0723 = 0.0977 \text{ kN/m}^2$$

$$5. \underline{\gamma_G \cdot q_{pp} + \gamma_{vp} \cdot q_{vp}}$$

$$\text{Perpendikular} \rightarrow \gamma_{vp} \cdot q_{vp} = 1.5 \cdot 1,15 = 1.72 \text{ kN/m}^2$$

$$\text{Paralelo} \rightarrow \gamma_G \cdot q_{pp} = 0.8 \cdot 0.0723 = 0.0977 \text{ kN/m}^2$$


Beraz, baieztapena bukatutzat emateko, konparatu behar da konbinaketa desfaboragarriaren karga balio (kasu honetan 4.konbinaketarena), itxiturak berak jasan dezakeen karga maximoarekin:

- Panelak jasan dezakeen karga maximoa: $342 \text{ daN/m}^2 = 3.42 \text{ kN/m}^2$
- Akzioen karga maximoa: 2.737 kN/m^2

Ondorioz, $2.737 \text{ kN/m}^2 < 3.42 \text{ kN/m}^2$ denez, panela modu egokian aukeratu da.

3.2.5. PETRALAK

Petralak, eraikinaren itxiturak eusten dituzten elementu estrukturalak dira. Altzairu konformatuazko perfilen erabilera aukeratu egin da bai estalkiko petralentzako eta baita alboko-itxituren petralentzako, perfil hauek duten prezio eta errendimendu erlazio onagatik. Estalkiaren inklinazioa 20% ($10^\circ = 17.5\%$) baino txikiagokoa denez, Z forman konformatutako petralak aukeratuko dira.



23. Irudia. Z forman konformatutako perfilak

Petralen dimentsionamendurako, *CYPE* programako “*Generador de pórticos*” modulua erabiliko da. Horretarako, petralen gain eragingo duten kargak definitzea beharrezkoa izango da obrako datu orokorrak eskatzen direnean. Horretaz aparte, portikoaren dimentsioak definitzea ere beharrezkoa izango da.

Behin hau eginda dagoela, kalkulua egiteko beharrezkoak diren beste datu batzuk sartu beharko dira. Lehenengoz, DB-SE-ren 4.3.3.1. atalari jarraituta, petralen gezi maximoa $L/300$ -ra mugatu beharko da. Bestalde, Clapeyronen 3 momentuen teoremak eskaintzen dituen abantailei men eginez, petralak habe jarraitu bezala kalkulatu dira, euskarrietan landatuz. Landapen hauen bitartez, momentu makurtzaile positibo maximoa murriztu nahi da, euskarrietan agertzen diren momentu negatiboekin. Honek, petralen gezia modu adierazgarri batean murriztea dakar. Muntaiaren baitan, petralak elkarrekin landatzea ezartzen da, ahala habe jarraitu bat bezala lan egin dezaten.

Horregatik, “*Generador de pórticos*”-en ematen diren aukeren artean, bao kopurua zehazterakoan, 3 bao edo gehiagoko aukera hartuko da kontuan, izan ere, eraikinak 10 bao edukiko baititu. Bestalde, finkapen trinkoa aukeratuko da, Sandwich motatako panelak, petralen biraketa ekiditeko eta euren planoan arriostratzeko haina zurruntasuna duela kontsideratzen baita.


Gauzak horrela, *CYPE*-k aukeratutako petralen zehaztasunak aterako ditu txosten batean.

3.2.5.1. Goiko petralak

S235 motatako altzairua duten, Z-n konformatutako perfilak aukeratu dira, elkarren artean 1.5 m-tara banatuta. *CYPE*-k, serie bateko perfil guztiak erakutsiko ditu, probetxua ehunekotan adieraziz. 100%-ra gehien hurbiltzen den probetxua duen petrala izango da aukerarik egokiena.

Kasu honetan, **ZF 250x3.0** motatako petralak aukeratu ditu estalkiarentzako. Probetxua %97,27-koa izango da eta haren berezko pisua 0,7 kN/m²-koa.

CYPE-k berak, erresistentzia eta gezia konprobatuko ditu CTE-n oinarrituta.



Laburpen bezala: egin behar diren konprobaketak:

ZF 250x3.0 (S235)

Erresistentziara baieztatzea
Aukeratutako perfilak, konprobaketa guztiak betetzen ditu.
Probetxamendu portzentaia:
- Erresistentzia: 97.27 %

Zabalera/lodiera erlazioa (*CTE DB SE-A, 5.5. taula eta Eurocódigo 3 EN 1993-1-3: 2006, 5.2.artikulua*)

Bete beharko da:

h / t : 79.3 ✓

b_1 / t : 22.7 ✓

c_1 / t : 6.3 ✓

$$b_2 / t : 19.3 \quad \checkmark$$

$$c_2 / t : 5.3 \quad \checkmark$$

Zurruntasun elementuek zurruntasun nahikoa dute hurrengo betetzen delako:

$$c_1 / b_1 : 0.279$$

$$c_2 / b_2 : 0.276$$

Non:

h : Arimaren altuera den.	h : 238.00 mm
b₁ : Goiko hegalaren zabalera den.	b₁ : 68.00 mm
c₁ : Goiko hegalaren zurruntasun elementuaren altuera den.	c₁ : 19.00 mm
b₂ : Beheko hegalaren zabalera den.	b₂ : 58.00 mm
c₂ : Beheko hegalaren zurruntasun elementuaren altuera den.	c₂ : 16.00 mm
t : Lodiera den.	t : 3.00 mm

Flexiorako erresistentzia. Y ardatza. (CTE DB SE-A eta Eurocódigo 3 EN 1993-1-3: 2006, 6.1.4.1. artikulua)

Bete behar da:

$$\eta : 0.974 \quad \checkmark$$

Flexio positiborako:

Akzioen hurrengo konbinaziorako: $0.80 \cdot G_1 + 0.80 \cdot G_2 + 1.50 \cdot V(0^\circ)$ H1 lortzen da baliorik kritikoena.

$$\mathbf{M}_{y,Ed} : \text{Egoera okerreko momentu makurtzailea.} \quad \mathbf{M}_{y,Ed^+} : 2.008 \quad \text{t}\cdot\text{m}$$

Flexio negatiborako:

$$\mathbf{M}_{y,Ed} : \text{Egoera okerreko momentu makurtzailea.} \quad \mathbf{M}_{y,Ed^-} : 0.000 \quad \text{t}\cdot\text{m}$$

Flexiorako erresistentzia kalkulua $\mathbf{M}_{c,Rd}$:

